

**IRAKASKUNTZA-GIDA**

2021/22

**Ikastegia**

231 - Psikologia Fakultatea

**Zikl.**

Zehaztugabea

**Plana**

GPSICO20 - Psikologiako Gradua

**Ikastaroa**

2. maila

**IRAKASGAIA**

25060 - Pentsamendua eta Mintzaira

**ECTS kredituak:** 6

**IRAKASGAIAREN AZALPENA ETA TESTUINGURUA ZEHAZTEA**

"Pentsamendua eta Hizkuntza" irakasgaiak bi prozesu hauetan sakonduko du, giza funtzionamendu kognitiboaren barruan.

Pentsamenduaren prozesuen eta Hizkuntzaren ulertze eta ekoizpen prozesuen esposizio zehatz bat eta Pentsamenduaren eta Hizkuntzaren arteko harremanen esposizio integratzaile bat ematen da.

Ez da hizkuntzaren garapena ematen, ezta hizkuntzaren oinarri neurobiologikoak ere, gai hauek beste irakasgaietan ematen direlako. Giza pentsamendu eta hizkuntza normaletan zentratzen da eta, beraz, ez da bi prozesuen psikopatologian sartzen.

Irakasgai hau UPV-EHUko Berrikuntzaren, Gizarte konpromisoaren eta Kulturgintzaren Errektoreordetzak bultzatutako irakaskuntza berrikuntzarako proiektu batean parte da (IKDi321-22 kodea). Proiektuaren izena "Metodologia aktiboen bidez oinarrizko prozesu psikologikoen azterketan jarrera zientifikoa, sortzailea eta autonomoa sustatzea" da.

Proiektu honen helburua gure unibertsitateak bultzatzen duen hezkuntza ereduan, IKD-i3 ereduan ("i ber hiru"), aurrera egitea da. Eredu honek irakasgaiak optimizatu nahi ditu, gure unibertsitateak hiru alderdi nagusitan duen kapitalera bideratuz: ikaskuntza, ikerkuntza eta iraunkortasuna.

Ikasleek irakasgaiaren irakaskuntza-gida osoago bat eskura dezakete ("Ikaslearen gida" izenekoa) E-gela plataformaren bidez.

**GAITASUNAK / IRAKASGAIA IKASTEAREN EMAITZAK**

1. Pentsamendua eta Hizkuntzaren funtzionamendua azaltzen duten oinarrizko erregelak ezagutu.
2. Pentsamendua eta Hizkuntzaren prozesuak azaltzen saiatzen diren eredu teorikoak, beren ezaugarriak, ezberdintasunak eta mugak, ezagutu, testu ezberdinak aztertuz, laburtuz, aurkeztuz eta horiei buruz eztabaidatuz.
3. Pentsamenduaren funtzionamendua eta honek eguneroko bizitzan dituen efektuak aztertu.
4. Diskurtsoaren analisi kritiko bat egiteko gai izan, pentsamendua eta hizkuntza gauzatzen diren testuingurua kontuan izanda.
5. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak egoki erabiltzeko eta irakasgaiaren edukietan aplikatzeko gai izan.

Irakasgaia lehen aipatutako IKD-i3 proiektuaren esparruan garatzean, garrantzi berezia emango zaio zeharkako kompetentzia hauek sustatzeari (UPV-EHUko 2019ko katalogotik aterata):

-Autonomia eta autoerregulazioa (ikasleek ikasteko eta erabakiak hartzeko orduan prozesu kognitibo metakognitiboari buruz kontzientzia har dezaten eta prozesu horiek optimiza ditzaten sustatzea).

-Gizarte konpromisoa (mota desberdinetako erronken aurrean ikasleen ekintza enpatikoak eta arduratsuak sustatzea).

-Informazioaren kudeaketa eta herritartasun digitala (ikasleek informazio zientifikoa modu kritiko, fidagarri eta arduratsuan erabil dezaten saiatuz).

-Berrikuntza eta ekintzailtza (ikasleek beren gaitasun berritzailea eta sortzailea optimiza dezaten sustatuz).

-Pentsamendu kritikoa (analisi gaitasuna, zalantzan jartzeko gaitasuna eta iritzi arrazoituen balioaz jabetzeko gaitasuna bultzatuz.).

Zeharkako gaitasun horiek bilatzeak Garapen Jasangarriko Helburu (GJH, 2030 Agenda, ONU) hauek lortzera bideratzen du irakasgaia.

O4, Kalitatezko hezkuntza.

O5, Genero-berdintasuna.

O8, Lan duina eta hazkunde ekonomikoa.

O10, Desberdintasunen murrizketa.

Aipatutako zeharkako gaitasun horiek dituen pertsona batek (pentsamendu kritikorako, zalantzan jartzeko, sormen-berrikuntzarako eta abarretarako joera duenak) aukera handiagoz sustatuko ditu garapen jasangarria, giza eskubideak, genero-berdintasuna, bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura sustatzea, eta abar. Gainera, gaitasun horiek ekintzailtza eta erronka ekonomiko eta sozialei eraginkortasunez aurre egitea sustatuko dute.

**CONTENIDOS TEÓRICO-PRÁCTICOS**

1. gaia. Pentsamenduaren eta Hizkuntzaren azterketa. Mugaketa kontzeptuala

1.1. Pentsamenduaren eta Hizkuntzaren arteko erlazioak

1.2. Pentsamendu eta Hizkuntza prozesuen ikerketa metodologia

2. gaia. Arrazonamenduaren Psikologia

2.1. Arrazonamenduaren ikerketa Pentsamenduaren Psikologiaren testuinguruan

- 2.2. Arrazonamenduaren Psikologian dauden ikerketa eremuak
- 2.3. Giza arrazonamenduaren ikerketan dauden ikuspuntu teorikoak

### 3. gaia. Arrazonamendua

- 3.1. Arrazonamendu deduktiboa
- 3.2. Arrazonamendu induktiboa

### 4. gaia. Problemen soluzioa

- 4.1. Gestalt eskola eta problemen soluzioa
- 4.2. Informazio prozesaketaren teoria eta problemen soluzioa
- 4.3. Arrazonamendu informala

### 5. gaia. Hizkuntzaren kontzeptua

- 5.1. Hizkuntzaren analisi- dimentsioak: egiturazkoa, funtzionala eta jokabidezkoa
- 5.2. Prozesu Psikologikoak hizkuntzaren erabileran

### 6. gaia. Hizkuntza ulertzea

- 6.1. Hitzak ezagutzea eta ulertzea
- 6.2. Perpausak ulertzea
- 6.3. Diskurtsoa ulertzea

### 7. gaia. Hizkuntza sortzea

- 7.1. Mezuaren planifikazio kontzeptuala
- 7.2. Mezuaren kodifikazio linguistikoa
- 7.3. Formulatzaileren arkitektura

## METODOLOGIA

Gelako praktketan eta tailerretan egindako lanaren bidez pentsamendua eta hizkuntzari buruzko gai berriagoetan sakondu nahi da. Gai hauek, pentsamenduaren kasuan, adibidez, arrazonamenduaren azterketan gailendu den paradigma deduktiboa baino haratago doaz. Aldi berean, gai hauek pentsamendua eta hizkuntza jendearen zerbitzura bezala ikusten eta ikertzen diren ikuspuntu batetik lantzen dira.

3 gai-multzo handi egituratu dira. 6 ordu dira, bakoitza 2 ordutako 3 klasetan egituratuta, testu desberdinekin lan eginez. Era berean, ikasle bakoitzak hiru gai-multzoetako batean sakonduko du, poster baten bidez publikoki defendatu beharko duen banakako lan baten bidez.

#### 1. Gure pentsamenduaren sistemak eta mugak

Helburuak:

A) Pentsamenduaren Psikologian kontsideratutako bi pentsamendu sistemak ezagutzea: 1 Sistema, automatikoa, intuitiboa, ia esfortzurik eskatzen ez duena, eta 2 Sistema, kontrolatua eta esfortzua eskatzen duena.

B) Gure pentsamenduaren zenbait muga ezagutzea: probabilitate gutxiko gertaerek duten efektua, gure ezjakintasuna onartzeko zailtasuna eta munduaren ziurgabetasuna, konfirmazio sesgoa eta falazia narratiboa.

C) Pentsamendu sistemei buruzko, gure eguneroko bizitzan pentsatzen dugun moduari buruzko eta gure pentsamenduaren mugei buruzko ondorioak ateratzea.

Egitekoak:

a) Teoriari buruzko irakurketa eta testu analisia. Testuak aztertuko dituen txosten baten elaborazioa. Lan praktikoaren aurkezpen publikoa (1, 2, 3, 4 eta 5 Gaitasunak).

b) Sakontze tailerrak, metodologia aktiboak erabiliz (3, 4 eta 5 Gaitasunak).

#### 2. Pentsamendua adimenaren eta ongizatearen zerbitzura

Helburuak:

A) Pentsamendu normalean agertzen diren pentsamendu automatiko negatibo motak modu kritikoan aztertzea eta pentsamendu mota hau aldatzeko modu desberdinei buruz hausnartzea.

B) Kahneman-en (2012) "Bi nien" arteko ezberdintasuna eta harremana ezagutu: esperimendatzen duen nia eta gogoratzen duen nia.

C) Gure pentsamendua gure ongizatearekin erlazionatzeko moduari buruzko ondorioak atera.

Egitekoak:

a) Testuen irakurketa eta analisia. Aztertutako testuei buruzko txostenen elaborazioa. Lan praktiko baten aurkezpen publikoa (1, 2, 3, 4 eta 5 Gaitasunak).

b) Sakontze tailerrak, metodologia aktiboak erabiliz (3, 4 eta 5 Gaitasunak).

#### 3. Diskurtsoaren analisi kritikoa

Helburuak:

A) Diskurtsoaren Analisi Kritikoak ikertzen dituen kontzeptu garrantzitsuenak eta diziplina honen marku teorikoak ezagutu.

B) Diskurtsoa era kritiko batean aztertu.

C) Diskurtsoaren analisiaren domeinua erakutsi, aukeratutako testu/diskurtso bat aztertuz.

Egitekoak:

a) Teoriari buruzko testu originalak irakurri eta aztertu. Aztertutako testuei buruzko txostenen elaborazioa. Testu baten hautaketa eta horren analisi kritikoa, klasean landutako teoriaren arabera. Lan praktikoaren aurkezpen publikoa (1, 2, 3, 4 eta 5 Gaitasunak).

b) Gidatutako sakontze eta eztabaidatze tailerrak. Testu bat era kritikoan aztertuko da, diskurtsoaren analisiaren metodologia espezifiko aplikatuz (3, 4 eta 5 Gaitasunak).

Irakasgaia lehen aipatutako IKD-i3 proiektuaren esparruan garatzean, ikasleek bi jarduera praktiko osagarritan (jarduera boluntarioak, anonimoak, berez prestakuntza-balioa dutenak eta nahiko laburrak) jardungo dute, "Helburu" diren gaitasunen eskuratze-maila ebaluatzeko.

Lehenengo jarduera ikasturtearen hiru unetan egingo da (ikasturtearen hasieran, erdian eta amaieran), eta 3-4 orrialdeko artikulu zientifiko labur bat irakurtzean datza, eta ondoren:

1) laburtzea (informazio zientifiko, idatzizko adierazpena, sintesi-gaitasuna erabiltzen direla frogatzeko),

2) haren analisi kritiko labur bat egitea (pentsamendu kritikoa eta adierazpen idatzia erakusteko)

3) eta artikuluan aurkeztutako ikerketa-ildoari jarraituko dion diseinu esperimental bat proposatzea (sormena eta berrikuntza erakusteko).

Beste jarduera ikastaroaren bi unetan egingo da (hasieran eta amaieran), eta kontzeptuen ausazko pareak proposatzean eta parte-hartzaileei 0tik 100era bitarteko eskalan kontzeptu horien artean hautematen duten distantzia baloratzeko eskatzean datza. Pare horietan, irakasgaiaren xede diren prozesu psikologikoen kontzeptuak eta psikologiaren hainbat arloekin lotutako beste kontzeptu batzuk sartuko dira. Zeregin horren bidez, ikasleek erabiltzen dituzten sare semantikoen bilakaerari buruzko ezagutza lortu nahi da, prozesu kognitiboekin lotutako kontzeptu akademikoei dagokienez.

## IRAKASKUNTZA MOTAK

Eskola mota	M	S	GA	GL	GO	GCL	TA	TI	GCA
Ikasgelako eskola-orduak	34		14				12		
Horas de Actividad No Presencial del Alumno/a	51		21				18		

**Legenda:** M: Magistrala

S: Mintegia

GA: Gelako p.

GL: Laborategiko p.

GO: Ordenagailuko p.

GCL: P. klinikoak

TA: Tailerra

TI: Tailer Ind.

GCA: Landa p.

## EBALUAZIO-SISTEMAK

- Azken ebaluazioaren sistema

## KALIFIKAZIOKO TRESNAK ETA EHUNEKOAK

- Test motatako proba % 70

- Ahozko defentsa % 10

- Talde lanak (arazoen ebazpenak, proiektuen diseinuak) % 20

## OHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA

Irakasgaia ebaluatzeko sistemak bi modalitate ditu:

A modalitatea) Ebaluazio-sistema mistoa: Ebaluazio finala (% 70, ezagutzak eskuratzearekin erlazionatutako gaitasunak ebaluatzeko test motako azterketa baten bidez) eta Ebaluazio jarria (% 30, gelako praktiken eta tailerren bidez).

Test motako azterketa aukera anitzekoa izango da, eta erantzuteko 4 aukera izango ditu. Errore bakoitza Asmatuak- (Erroreak/N-1) (N = erantzun aukeren kopurua) formularen arabera penalizatuko da.

Adierazi bezala, azterketak nota finalaren %70a suposatzen du.

Ebaluazio jarriari dagokionez, oro har, saio ezberdinetan ikasleek, talde txikitan, egiteko bat egin beharko dute egindako irakurketak lantzeko. Oro har, egiteko hauek nota finalaren % 20a suposatuko dute.

Era berean, ikasleek bakarkako lan bat egin beharko dute, publikoki defendatuko dutena eta nota finalaren %10a suposatuko duena.

Oro har, ebaluazio jarriak nota finalaren % 30a suposatzen du (saio ezberdinetan egindako talde-lanak eta azken saioetan banakako lana aurkeztea). Ikasleek, alde batetik, taldeko lanak gainditu beharko dituzte (2 puntutatik puntu 1 lortzea), eta, bestetik, banakako lana (puntu batetik 0,5 lortzea) zati hau gainditzeko (ebaluazio jarria).

Era berean, eta gaitasunen garapena sustatu nahi den neurrian, ikasleen parte-hartze aktiboa baloratuko da.

Ikasleek bai zati teorikoa (test motako azterketa), bai zati praktikoa (egitekoak eta bakarkako lana) gainditu beharko dituzte irakasgaia gainditu ahal izateko.

Ikasle batek ebaluazio jarria gainditzen ez badu, B modalitateko azterketa baliokidera aurkeztu beharko du (jarraian zehazten da).

B modalitatea) Ebaluazio finala: klase magistraletan landutako ezagutzak eskuratzearekin erlazionatutako gaitasunak ebaluatzeko test motako azterketa baten bidez (% 70) eta gelako praktikan eta tailerretan landutako gaitasunak ebaluatzeko praktika-bloke bakoitzeko bi galdera/ariketa izango dituen azterketa baten bidez.

Azterketaren lehen zatiak (test motako azterketa, A modalitatean bezala), esan bezala, nota finalaren % 70a suposatzen

du. Zati hau gainditu beharko da irakasgaia gainditu ahal izateko.

Azterketaren bigarren zatiak 2 galdera ireki/ariketa ditu praktiketako gai-multzo bakoitzeko. Notaren %30a suposatzen du, eta gainditu egin behar da irakasgaia gainditu ahal izateko.

**IRASGAI HONETAN, NAHIKOA IZANGO DA TEST MOTAKO AZTERKETARA EZ AURKEZTEA DEIALDIARI UKO EGITEKO.**

**IRAKASGAIAREN EBALUZIO BIRTUALERAKO PLANA:**

Covid-19ko pandemiak eragindako alarma-egoerarekin berriki bizi izan diren salbuespenezko zirkunstantzien aurrean, aurretik aurkeztutako irakaskuntza-gidak eta web-orrian argitaratutako gida ofizialeko irizpideak aldatu edo ordezkatu ahal izango ditu irakasgaiaren irakaskuntza taldeak, ebentualki ad hoc ebaluazio-plan bat ezarriz, honako irizpide orokor honi jarraituz: "Pentsamendua eta Mintzaira irakasgairako salbuespeneko zirkunstantzietan proposatutako ebaluzio plan ez presentziala, aurretik aurkeztutako ebaluazio presentzialaren islada izaten saiatuko da, eGela irakaskuntza-plataforma birtualean eskuragarri egongo diren aktibitate ezberdinen bidez".

## **EZOHIKO DEIALDIA: ORIENTAZIOAK ETA UKO EGITEA**

Ohiko deialdirako dauden orientazio berberak.

## **NAHITAEZ ERABILI BEHARREKO MATERIALAK**

Irakaskuntza taldeak praktiketarako hautatutako artikulak eta liburu-kapituluak. Klaseen lehenengo egunean zehazten dira.

## **BIBLIOGRAFÍA**

### **Oinarrizko bibliografia**

- Belinchón, M., Rivière, A. eta Igoa, J. M. (1992). *Psicología del lenguaje*. Madril: Trotta.
- Carretero, M. eta Asensio, M. (2004) *Psicología del pensamiento*. Madril: Alianza.
- Cuetos, F., González, J. eta de Vega, M. (2015). *Psicología del lenguaje*. Madril: Editorial Médica Panamericana.
- De Vega, M. eta Cuetos, F. (1999). *Psicolingüística del español*. Madril: Trotta.
- Domínguez, A. (2002). *Lenguaje y psicología: Conjugando forma y función*. La Laguna: Servicio de Publicaciones de la Universidad de La Laguna.
- Espino, O. G. (2004). *Pensamiento y razonamiento*. Madril: Pirámide.
- Gabucio, F. (koord.) (2005). *Psicología del pensamiento*. Bartzelona: UOC.
- Gigerenzer, G. (2008). *Decisiones Instintivas. La inteligencia del inconsciente*. Bartzelona: Ariel.
- Harley, T. (2013). *Psicología del Lenguaje. De los datos a la teoría*. Madril: McGraw Hill.
- Kahneman, D. (2012). *Pensar rápido, pensar despacio*. Bartzelona: Debate.
- Santamaría, C. (1995). *Introducción al razonamiento humano*. Madril: Alianza.

### **Gehiago sakontzeko bibliografia**

- Ayuso, M. (1997). *Razonamiento y racionalidad. ¿Somos lógicos?* Bartzelona: Paidós.
- Fernández, M. eta Anula, A. (1995). *Sintaxis y Cognición. Introducción al conocimiento, el procesamiento y los déficits sintácticos*. Madril: Síntesis.
- García Madruga, J. A., Garrieto, N. eta González Labra, M. J. (2000). *Mental models in reasoning*. Madril: UNED.
- Holyoak, K. eta Morrison, R. (Ed.) (2012). *The Oxford Handbook of thinking and reasoning*. Nueva York: Oxford University Press.
- Manktelow, K. (1999). *Reasoning and thinking*. East Sussex, UK: Psychology Press.
- Newstead, S. eta Evans, J. St. B. (Ed.) (1995). *Perspectives on thinking and reasoning. Essays in honour of Peter Wason*. Hove, UK: LEA.
- Rueschemeyer, S. A. eta Gaskell, G. (Ed.) (2018). *The Oxford Handbook of Psycholinguistics (2º ed)*. Nueva York: Oxford University Press.
- Saiz, C. (koord.) (2002). *Pensamiento crítico: Conceptos básicos y actividades prácticas*. Madril: Pirámide.
- Schaeken, W., De Vooght, G., Vandierendonck, A. eta d&#180;Ydewalle, G. (2000). *Deductive reasoning and strategies*. London: LEA.
- Spivey, M. J., McRae, K. eta Joanisse, M. F. (Ed.) (2012). *The Cambridge Handbook of Psycholinguistics*. Nueva York: Cambridge University Press.
- Sternberg, R. J. (1994). *Thinking and problem solving*. San Diego: Academic&#180; Press.
- Stevenson, R. (1993). *Language, thought and representation*. West Sussex, UK: John Wiley and Sons.

### **Aldizkariak**

- Applied Cognitive Psychology (URL: <https://onlinelibrary.wiley.com/journal/10990720>)
- Brain and Language (URL: <https://www.journals.elsevier.com/brain-and-language>)
- Cognitive Psychology (URL: <https://www.journals.elsevier.com/cognitive-psychology>)
- Discourse and Society (URL: <https://journals.sagepub.com/home/das>)
- Discourse Processes (URL: <https://www.tandfonline.com/toc/hdsp20/current>)

Discurso y Sociedad (URL: <http://www.dissoc.org/>)

Language and Cognitive Processes (URL: <https://www.tandfonline.com/toc/plcp20/current>)

Psicológica (URL: <https://www.uv.es/psicologica/>)

Thinking and Reasoning (URL: <https://www.tandfonline.com/toc/ptar20/current>)

### Interneteko helbide interesgarriak

[http://en.wikipedia.org/wiki/Sapir-Whorf\\_hypothesis](http://en.wikipedia.org/wiki/Sapir-Whorf_hypothesis)

<https://researchers.mq.edu.au/en/organisations/department-of-cognitive-science/persons/>

<http://platea.pntic.mec.es/~macruz/enlaces/psico/lenguaje.html>

<http://cogprints.org/353/>

<http://www.marxists.org/archive/vygotsky/works/words/ch02.htm>

<http://www.tcd.ie/Psychology>

### OHARRAK

Oinarrizko Psikologia arloko irakasgaia bada ere, bertan zubiak eraikitzen dira gai aplikatuekin, ikasleei helarazteko inplikazio teoriko sakoneko gaiak ez dutela zertan bereizita egon eguneroko fenomenoetatik ezta Psikologiak arlo aplikatuetan eta gizartean garrantzi handiko eremuetan, hala nola, hezkuntzan, klinikan, esku-hartze komunitarioan eta abarretan, dituen aukeretatik.

Ohar garrantzitsua: Gida hau irakaskuntza presentziala dela suposatuz egin da. Birtuala izan behar badu, irakaskuntza taldeak berrantolatuko du eskola magistraletako eta klase praktikoetako irakaskuntza, bai eta irakasgaiaren ebaluazioa ere, egoera horretara egokitzeko, 2019-20 ikasturteko bigarren lauhilekoan egin den bezala.